

Txikienak matrikulatzeko garaia

Herriko haurreskola, «kalitatearen» alde ▶ 5



Almoneda eta Altzari Zaharren Azoka gaurtik

TOLOSA ▶ Ferialekuan izango da altzarien salmenta eta erakusketa igandea bitarte

HAMABOST ▶ Gipuzkoa, Bizkaia eta Madrilgo 15 erakusmahai izango dira ▶ 2



Leitzarango A-15 autobiarren 10. urtemuga gogoan

BERASTEGI ▶ Atzo bete zituen hamar urte Andoaindik Irurtzunera doan A-15 autobiak. Gipuzkoako Foru Aldundiko —gaur egungo eta lehengo— eta Nafarroako Gobernuko ordezkari batzuk elkartu ziren Berastegiko balkoian ekitaldi batean. Autobia honen eraikuntzak eztabaida ugari sortu zituen eta bost


urte iraun zuen. Bere helburua bete dela eta komunikabide ardatz nagusienetakoa bihurtu dela adierazi zuten atzo bildutako agintariek. Urtero %5 handitzen da igarotzen direnen kopurua. Argazkian, Eli Galdos, Leire Ereño, Alvaro Miranda, Joxe Joan Gonzalez Txabarri eta Roman Sudupe. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS ▶ 6

LEITZA ▶

Aurrerak agur esan dio igotzeko aukerari

Merezitako opor garaia iritsi zaie orain futbolariei ▶ 7

TOLOSA ▶



AITOR ELDUAIEN

Mendiko bizikletan, punta-puntan

Gorka Telleria eta Ramon Lekuona lider dira bere mailetan ▶ 3

LEKUA LUGAR ▶ TOLOSAKO UDALA

TOLOSA | MAIATZA | 9 - 10 - 11 | MAYO

JARDUNALDIAK

JORNADAS

TURISMOA

TOLOSALDEAN

INFORMAZIO GEHIAGO
MÁS INFORMACIÓN

943 69 74 13
www.tolosaldea.net

DIRIGIDO A:
Responsables de comercio, hostelería, alojamientos...
Técnicos en urbanismo y turismo.
Técnicos municipales de cultura y desarrollo local.



AZOKA ▶

Almoneda eta Altzari Zaharren Azokak gaur zabalduko ditu ateak

Ferialekuan izango da erakusketa eta salmenta; Gipuzkoa, Bizkaia eta Madrilgo 15 erakusmahai daude, igandera arte



Almoneda eta Altzari Zaharren Azoka gaur hasiko da Ferialekuan, eta igandean amaituko. J. SAIZAR

IRATXE ETXEBESTE

XI. edizioa beteko du aurten Tolosako Almoneda eta Altzari Zaharren Azokak, eta «orain arte sekula ikusi ez diren gauzak» ekarriko omen dituzte antolatzaileek herrira. Tolosako Udalarekin batera, erakusleek beraiek prestatu dute gaur hasi eta igandea bitarte Ferialekuan izango den azoka hori, eta erakusle gehienak Gipuzkoatik etorriko diren arren, Bizkaitik eta Madrildik ere ordezkari izango dela iragarri dute. Hori dela eta gonbita luzatu diete antolatzaileek herritarrei egunotan Ferialekura

joateko, batez ere, «galera eta erakustoki garrantzitsuetako objektuak ikusteko eta erosteko aukera» izango dutelako.

Urretxuko Maiala dendako jabe eta Tolosako Almoneda eta Altzari Zaharren Azokako antolatzaile Iñaki Soraluzek azoka horrek duen garrantzia azpimarratu nahi izan du, «urteko urtera mantentzeak merezi duela» esanez: «Orain bi urte kale egin zuen azokak Tolosan, eta iaz berriz ere antolatu genuen, almoneda eta altzari zaharrek aritzen garenok zer egiten dugun jendearekin erakustea oso baliotsua dela uste dugar. Horrez gain, ikusleek

zerbait erosten badute, ere hobeto», dio Soraluzek. 3 euro ordainduz gero, edonork izango du Ferialekura sartzeko aukera gaurtik igandera.

Aukera handia Ferialekuan

Hamabost erakusmahai jarriko dituzte Ferialekuan guztira, eta almoneda—50 eta 100 urte arteko altzariei deitzen zaie horrela— eta altzari zaharren—100 urteko gorakoak dira— artean, aukera zabala eskainiko dute. Orain arte Tolosako azokan egon ez diren elementuak ere izango omen dira horien artean: garai bateko arropak, adibidez.

«Urtero-urtero azokako eskaintza ezberdina izan dadin» ahalegintzen direla adierazi dute antolatzaileek horren harira. Izan ere, «garrantzitsua izaten da bisitarien edizio batean eta bestean objektu eta altzari ezberdinak erakustea, gainerakoan, aspertu egingo lirakekelako».

Bestalde, urteroko erakusleak ezberdinak izateari buruz galdetuta zera adierazi du urretxuarrak: «Saltzen bada erraza da hurrengo urteetan azokarako izena ematea, baina saldu ezean atzera eginen dute batzuk, altzariekin hona eta hara ibiltzeak kostu handia duelako, eta aldeaz aurretik jarritako diruari buelta eman behar izaten diogulako». Igandetik aurrera egin beharko dituzte balorazioak aurtengoaz.

‘TOLOSA HIRI EUSKALDUNA’ ▶

Askotariko ekitaldiak izango dira bihar herrian

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatu ditu «kaleko giroa euskalduntzeko» helburuarekin

I. ETXEBESTE

Duela hilabete-edo aurreratu zuen Hitzak Galtzaundi Euskara Taldeak kaleko giroa euskalduntzeko sentsibilizazio kanpaina jarri zuela abian *Tolosa, hiri euskalduna* izenarekin. Izan ere, «euskararen erabilera erabat finkatua dago eskolan edota etxean, baina ezin autosatisfakzioan erori; euskararen normalkuntzan oraindik ere zer egiterik bada. Kaleko giroan, esaterako, gorabeherak nabari dira».

Ildo horretatik, askotariko ekitaldiak antolatu dituzte apirilaren erdialdetik gaurdaino, eta kanpainari bukaera emateko beste ekitaldi sorta bat aurkeztu dute. Hurrekin, gazteekin eta helduekin pentsatuta osatu dute biharko egitaraua: arratsaldetik aurrera, haur jolasak, eskualdeko bertsolarien saioa, afari herrikoia eta DJ festa izango dira herriko gune ezberdinetan.

Antolatzaileek iragarri dute Abastos plazan izango den afari herrikoirako txartelak ohiko lekuetan direla salgai: Galtzaundiren egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6 behe) ez ezik, herriko hainbat taberna ere lortu ahal izango dituzte herritarrek, 10 eurotan. Trikitilariak alaituko dute afalostea, eta gauerdetik aurrera tabernetan jarraituko du festak.

EGITARAUA ▶

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, haurrentzako, gazteentzako eta helduentzako moduko ekitaldiak izango dira bihar, arratsaldetik goizaldera, herriko gune ezberdinetan.

BIHAR

16:00-19:30. Haurrentzako puzgarriak eta euskaraokoa Tolosako Plaza Berrian.
19:30-21:00. Arjel Mari Peñagarikano, Xabier Silveira, Amaia Agirre eta Bixente Gorostidi bertsolarien saioa Abastos plazan.
21:00-00:00. Afari herrikoia trikitilariak alaituta Abastos plazan.
00:00. Ordu horretatik aurrera, DJ festa herriko tabernetan.

Djak ariko direlako musika jartzen.

Iganderako, berriz, Iparraldeko ikastolen alde Senperen izango den Herri Urratsera joateko gonbita egin dute Galtzaundi Euskara Taldekoek. Autobusa antolatu du Galtzaundi Euskara Taldeak, eta bertan joateko asmoa dutenek gaur dute izena emateko azken eguna, 17:00etatik aurrera, bulegoan.

KZGUNEA ▶

Aldatu egin dute ikastaro batzuen ordutegia

Hilabete honetako ikastaro batzuetan lekua gelditzen da oraindik; izena eman daiteke

I. ETXEBESTE

Tolosako Pablo Gorosabel kallean dagoen KZgunean aldatu egingo dute ordutegia ekainean, eta, hortaz, ikastaroek ere beste ordutegi bat izango dute: Internet 20 orduko ikastaroa 08:00etatik 09:30era izango da maiatzaren 30etik ekainaren 10era goizez, eta arratsaldeko saioa 14:00etatik 15:30era izango da.

Ekainaren 13tik 23ra, berriz, 08:00etatik 09:30era izango da goizez ikastaroa, eta 14:00etatik 15:30era, arratsaldean.

Bestalde, KZguneko ardura-dunek adierazi dute maiatzeko ikastaroetan tokia gelditzen dela oraindik, eta izena eman nahi dutenek bertara azaldu (Pablo Gorosabel, 34 bis) edo 943 65 37 20 telefonora deitu beharko dutela.

XI. ALMONEDA ETA ALTZARI ZAHARRIN AZOKA ▶

Tolosako XI. Almoneda eta Altzari Zaharren Azoka gaur hasiko da Ferialekuan, eta igandea bitarte iraungo du.

ORDUTEGIA

Inaugurazioa. Bihar izango da, 11:00etan, profesional, laguntzaile eta prentsa-ri zuzenduta. Udal agintariak ere hartuko dute parte.

Ostiraletik igandera. Bihar 11:30ean irekiko dute azoka herritarrentzat. Gainerako egunetan, berriz, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 21:00etara izango da zabalik.

SARRERA

3 euro. Azokara sartu ahal izateko, 3 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek.

- Etxeko altzariak. Tel.: 943 65 29 01
- Ordenagailuz egindako proiektuak. Lizardi poeta, 2
- Armairu enpotratuak neurria. TOLOSA
lo egiteko eta atsedean hartzeko onena

MENDIKO BIZIKLETA ▶

Eskualdeko ordezkariak punta-puntan dira, sasoiko

Gorka Telleria (Bikezona.com-Alpinestars) eta Ramon Lekuona (Mendikute KKE) liderrak dira Euskadiko Openean, 23 urte azpikoen eta 40 urte gorakoen mailetan

LEIRE MONTES

Beste behin, maila bikaina ari dira ematen eskualdeko mendiko bizikletako lasterkariak. Mendikute taldekoek eta Gorka Telleria tolosarrak —Bikezona.com-Alpinestars taldean ari da orain; lehen Mendiku KKE taldearekin korritzen zuen— onenen arteko lehian jarraitzen dute. Hauexek dira ziklistek berriki jokatuak probak:

Euskadiko Openeko 2. proba (Arazuri, Nafarroa). Eguraldi txarrari eta, ondorioz, ibilbide lokaztuari egin behar izan zioten aurre eskualdeko ziklistek Euskadiko Openeko bigarren proban. 7 bira eman behar izan zioten 5,5 kilometroko ibilbideari. Teknikoki zailtasun handirik ez izan arren, eguraldiak eta lokatzak asko baldintzatu eta gogortu zuten lasterketa.

Ramon Lekuona lezoarrak (Mendikute KKE) irabazi egin zuen 40 urte gorakoen mailan. «Oso lasterketa polita egin zuen. Hasieratik alde egin zuen aurkariengandik, eta bakarrik iritsi zen helmugara», azaldu



Gorka Telleria, Obanosen korritutako lasterketan. HITZA



Telleria (erdian), Obanoseko podiumean, 23 urte azpikoetan. HITZA

dute Mendikute taldeko ordezkariak.

Gorka Telleria tolosarrak (Bikezona.com-Alpinestars) bigarren postua lortu zuen 23 urte azpikoen mailan. «Honek ere ez zuen lasterketa txarra egin, baina hotzak atzean gelditzea eragin zuen».

Unai Korta usurbildarrak (Mendikute KKE) 20. postua lortu zuen elite mailan. Bestalde, Iñaki Izagirre eta Kepa Ganuza tolosarrak (biak Mendikute KKEkoak) erretiratu egin ziren, «arazo mekanigoengatik».

Arazuriko proba korrituta, Ramon Lekuonak 1. postua eskuratu zuen 40 urte gorakoen mailan Euskadiko Openean, bigarren sailkatuarekiko puntu bateko aldearekin. Gorka Telleriak bigarren postuan jarraitu zuen, baina puntu batera zuen orduan lidergoa. Unai Korta eta Kepa Ganuza, azkenik, 30. eta 31. postuan ziren, hurrenez hurren.

Gipuzkoako Txapelketa (Arrasate, Gipuzkoa). «Pozik» itzuli ziren etxera eskualdeko kirolariak, «emaitza ezinhobeak»

lortu baitzituzten. Ramon Lekuonak lezoarrak (Mendikute KKE) eta Gorka Telleria tolosarrak (Bikezona.com-Alpinestars) Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten, 40 urte gorakoen eta 23 urte azpikoen mailan, hurrenez hurren. Hala, lehen postuan jarri ziren biak.

Obanos Sari Nagusia-Euskadiko Openeko 4. proba (Obanos-Nafarroa). Euskadiko Openerako puntuagarria den laugarren lasterketa hau joan den asteburuan jokatu zuten. 7 kilometroko zirkuitoa prestatu zuten antolatzaileek, eta lasterkariak bost bira eman behar zituzten. «Lasterketa oso gogorra izan zen parte-hartzaileen-tzat, bero handiagatik gehienbat», adierazi dute Mendikutekoek.

Ramon Lekuonak (Mendikute) irabazi egin zuen 40 urte gorakoen mailan. Gorka Telleria (Bikezona.com-Alpinestars) ere podiumera igo zen Obanosen, lehena izan baitzen 23 urte azpikoen mailan. «Lehendabiziko biran alde egin zuen, eta bukaera arte bakarrik korritu zuen lasterketa». Unai Kortak, Kepa Ganuzak eta Iñaki Izagirrek (Mendikute KKE taldekoak hirurak) proba utzi egin behar izan zuten.

Sailkapen orokorrari dago-kionean, Ramon Lekuonak eta Gorka Telleriak lider jarraitzen dute, bakoitza bere mailan. Mendiko bizikletako lasterkari-rik onenak eskualdetik joandakoak direla argi utzi dute, beste behin.

IGERIKETA ▶

Balaton lakua (Hungaria) zeharkatzea, Carlos Peñaren erronka berria

Erdialdeko Europako lakurik handiena da; lau egunetan burutu nahi du balentria tolosarrak

L. MONTES

Erronka berriari ekiteko prest da Carlos Peña igerilari tolosarra. Balaton lakua igerian bizkarrez zeharkatzea du orain helburu, eta bihar abiatuko da Hungariara bere nahia betetzeko asmoz.

Hungariako hiriburua Budapestetik bi ordura dago Balaton, eta Erdialdeko Europako lakurik handiena da. 80 kilometro luze da, 15 kilometro zabal, eta 4 metroko sakonera du.

Peñak lau egunetan zeharkatu nahi du lakua. Baina Klimak eta eguraldiak nabarmen baldintzatu du Peñaren balentria. Neguan izotzak estaltzen du lakua, eta litekeena da tolosarra oraindik ere izotzari aurre egin behar izatea. Gainera, Balaton ez da oso segurua: ur korranteak, haizea eta eguraldia oso aldakorrek dira, eta ekaitz gogorrek ohikoak dira ertzetan.

Carlos Peñak Jesus Ramirez prestatzaile eta masajistaren



Ezker-eskuin: Jesus Ramirez, Carlos Peña eta Ainhoa Amat. HITZA

laguntza jasoko du erronka berri honetan. Ainhoa Amat izango dute biek bidelagun, itzultzaile lanetan.

Tolosarraren proiektuak Balaton lakuaren Koordinaziorako eta Garapenerako Hungariako Elkartearen laguntza jaso du.

XAKE ▶

Amaitu da Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketa

Taldeka txukun aritu ziren eskualdekoak


L. MONTES

Gipuzkoako Eskolarteko Xake Txapelketaren finalak jokatu ziren asteburuan. Tolosa-Ibarako xake taldekoek adierazi dutenez, «banakako saioan eskualdeko jokalariek ez ziren oso fin aritu, eta gehienek sailkapenaren erdialdean amaitu zuten». Aitor Alkorta (Jesusen Bihotza-Villabona) izan zen denetan onena, eta zazpigarren sailkatu zen alebin mailan. Taldeka, ordea, «askoz itxura hobea» eman zuten eskualdeko xakelariak: Xabier Corredarak, Aitor Al-

kortak, Julen Clarkek eta Aitor Villenak osatutako alebinen taldea (Jesusen Bihotza) Gipuzkoako laugarren izan zen.

Bestalde, larunbatean Jace-tania Maratoia jokatu zen Jacan (Espainia). Tolosarrek eta ibartarrek «emaitza bikainak» lortu zituzten: zortzi orduz etengabe xakean, berrogei partidatik gora jokatu, Sabino Etxeberrria tolosarra saileko txapeliduna izan zen. Ibarrrako Xabier Mujika laugarren sailkatu zen. Eta, eguna borobiltzeko, Javier Baroja tolosarrak gauerdiko Bowling txapelketa irabazi zuen.

ALKIZA ▶ HEZKUNTZA



Josu Eizmendi, diploma eta oroigarria eskuetan dituela. I. GARCIA

Josu Eizmendik bigarren saria eskuratu du

Madriren egin den Conforp lehiaketan lortu du Dani Garcia ikaskidearekin

IMANOL GARCIA

Josu Eizmendi alkizarrak, Dani Garcia ikaskide lasartearraren batera, bigarren saria lortu zuen aurreko astean Madriren egindako Conforp automozio lehiaketan. Hego Euskal Herriko eta Espainiako ikastetxe ezberdinetako zortzi bikotek hartu zuten parte. Oso gustura daude lortutako emaitzarekin, ez baitzuten espero postu horretan gelditzea. «Madriera lagundu zigun maisuarekin apustua egin nuen», esan dio Josu Eizmendik HITZARI. «Nik azkenengo hiruren artean geldituko ginela esan zuen eta berak lehenengo hiruretan. Berak irabazi zuen apustua».

Errenterriko Don Boscon bukatu berri dituzte ikasketak Eizmendik eta Garciak. Madriren egindako lehiaketan elektromekanikako alorrean hartu zuten parte. Lehian parte hartzeko, Interneten test bat egin behar izan zuten eta ondoren lan bat aurkeztu autoen eseki-

durari buruz. Epaimahaikoez beren lana aukeratu zuten eta Madriren izan ziren aurreko astean. Bost proba praktikoa eta bi teorikoa egin behar izan zituzten. Proba praktikoa Mercedes etxeko auto ezberdinen elektromekanikari buruz jakin behar zuten eta baita zenbait matxura konpndu ere. Bi ikaskideek hain justu Mercedes markako tailerretan aritu dira praktiketan eta lanarean. Agian horrek balio izan zien bigarren saria lortzeko.

Halere, probak amaitzerakoan ez zuten espero horrelako emaitzarik lortzea. Eizmendik eta Garciak garaikurra, diploma eta 150 euro jaso zituzten bakoitzarentzat. Ikastetxeak ere jaso zuen saririk.

Mekanikari alkizarrak egun Irurako Mercedes etxeko kamioi tailerrian ari da lanean. «Betidanik gustatu zait mundu hau. Gaztetatik Baserrian traktorean eta saltseatzen ibili naiz», azaldu du. Afizioa lanbide bihurtu du.

VILLABONA ▶ KULTURA

Hodeiertz abesbatzaren kontzertua bihar Jesusen Bihotza parrokian

Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da

ERREDAKZIOA

Tolosako Hodeiertz abesbatzak kontzertua eskainiko du bihar herriko Jesusen Bihotza parrokian. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrera doan izango da. Kontzertuan eliz musika eta abesti herrikoiak entzun ahaliko dira, F Berges-en *Maria, Rosa Candida*, H. Purcell-en *Music for a while*, Lertxundi-Ondarraren *Herribera*, esaterako.

Hodeiertz 1983. urtean sortu zen eta eskaini dituen kontzertuen kalitateagatik, bere soinu zainduagatik eta programen originaltasunagatik nabarmendu da. Nazioarteko lehiaketetan lehenengo sariak lortu ditu abesbatzak. Horien artean aipagarri dira: Lehenengo Saria Nazioarteko Lehiaketan Varnan (Bulgaria) 1991n;



Hodeiertz Abesbatza osatzen duten kideak. HITZA

1996an Hodeiertzek Sidneyko Operaren Kontzertu-Aretoa jardun zuen, Koruko Musikaren Munduko IV. Sinposioan. 2003an hirugarren saria jaso zuen Gorziako (Italia) Nazioarteko Lehiaketan.

Bestalde, hainbat jaialditan parte hartu du: Missoula eta Atlanta (Estatu Batuak)

1993an; Marsella (Frantzia) 1995ean; Brisbane (Australia) 1996an; Fano (Italia) 1997an; Donostiako Musika Hamabostaldia (1992, 1993, 1996 eta 1998 urtetan). 2004. urtean programa polikoral bat eskaini du, besteak beste 40 ahots mistoetarako Thomas Tallisen *Spem in alium* obrarekin.



Bi istripu eskualdean

IRURA/ALEGIA ▶ Atzo bi istripu izan ziren eskualdean. Biak N-1ean izan ziren. Goizeko lehenengo orduetan Guardia Zibilaren auto batek istripua izan zuen —argazkian— Irurako Trinkete ondoko bihurgunean, Gasteizerako norabidean. Barruan zihoazen bi agenteek zauri arinak izan zituzten. Istripua, baina, oso ikusgarria izan zen, Guardia Zibilaren auto errepidetik atera eta argindar-zutabe baten ondora erori baitzen. Bestalde, arratsaldean, Alegiako bihurgunean, zauriturik gabeko istripua izan zen. Irunerako norabidean zihoan auto bat bere bidetik atera eta eskuineko erraila oztapatu zuen dembora batez. Hori dela eta, erraila itxi zuten garabiak autoa eraman zuen arte. I.GARCIA

IRURA ▶

Frontoia itxita, bertan egiten ari diren lanak direla-eta

Pareta bat egiten eta bestea konpontzen ari dira; lanen amaiera jakinaraziko du Udalak

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak jakinarazi du frontoia itxiuta izango dela hasi diren obrak direla-eta. Pareta bat egiten ari dira eta bestea konpontzen. Udalak jakinaraziko du lanak bukatzen direnean.

Bestalde, gaur gauean, Kultur Asteko Mus Txapelketaren 5. kanporaketa jokatuko dute Zaharren Biltokian musikariek, 22:30ean hasita. Ondoren, final-laurdenak jokatuko dira.

Beste ekitaldi bat ere izango da bihar: gaztetxoentzako argazki lehiaketa. Parte-hartzaileak 16:30ean azaldu behar dute kamara eskuan herriko plazara. Karreteak Udalak banatuko dizkei eta ordubete izango dute argazkiak egiteko.

BALIARRAIN ▶ HEZKUNTZA



Baliarraingo haurreskolan dauden lau umeak jolas-gelan: Garazi, Markel, Uxue eta Aiur. N. LATABURU

Etxeko 'kuttunak' matrikulatzeko garaia

Baliarraingo haurreskolak «kalitatezko» hezkuntzaren alde egiten du; matrikulazio epea ireki du maiatzaren 18ra arte

NOELIA LATABURU

Garazi, Markel, Uxue eta Aiur. Baliarraingo haurreskolara joaten diren lau haurtxoen izenak dira. Beraiek bezala, inguruan bizi diren 0 eta 3 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoek ere aukera izango dute datorren ikasturtean euren umeak bertara eramateko, izan ere, aste honetan, eta 18ra bitarte, ireki dute haurreskolaren matrikulazio epea.

Aukera zabala eskaintzen ditu iragan irailean lehen aldiz atekak ireki zituen haurreskola berriak eta baldintzak gurasoen beharren arabera «malgutasunez» moldatzen direla adierazi dute bertan lan egiten duten bi hezitzaileek, Arrate Martinezek eta Maider Fernandezek. Ohiko ordutegia hemen 08:00etatik 16:00etara da; umeek, beraz, bazkaria eta siesa ere bertan egiten dituzte. Eta hau guztirako instalakuntza egokiak dituzte Baliarrainen: jolas-gela, sukaldia, umeak aldatzeko gunea, sehaska gela eta aldagelak. Gainera, «naturarekin kontaktu zuzena izateko» haur parke bat dute kanpoaldean. Halaber, bi hezitzailek egiten dute lan bertan eta honek «abantaila» handia dakar, umeekiko arreta «zuzenagoa» baita.

Matrikulazio kanpaina ere aste honetan jarri dute mar-



Bazkaria ere haurreskolan bertan egiten dute haurtxoek. N. LATABURU

txan ikaztegieta eta Baliarraingo biztanleen artean bereziki, adin hauetako haurrak dituzten etxetara haurreskolari buruzko informazioa bidali baitute posta bidez. Haurreskolatik euren baldintzen eta lanaren berri ematearen garrantzia azpimarratu dute eta landa eremuko herri bat izanagatik, «gure kalitatea eta eskaintzak

oso altua da, haur gehiegi dauden lekuetan baino hobea kasu askotan, kontaktu zuzenagoa baita», azaldu dute.

Haurreskolaren prezioa 135 eurokoa da 5 ordu baino gutxiagokoz eta 180 eurokoa, 5 orduko gora daudenentzat. Instalakuntzak bisitatu nahi dutenentzat «eskolako atekak irekita daude».

BALIARRAIN ▶

UEMA eguneko bidaiara joateko izen-ematea

Maiatzaren 14ean Maulen izango den UEMA egunera joateko autobusa antolatuta du Baliarraingo Udalak eta Arkaitz elkarteak. Helduei 15 euro eta haurrei 7 euro kobratuko zaie, bazkaria eta garraioa barne. Gaur deituko zaie herritarrei etxetik izena emateko.

ELDUAIN ▶

Mus txapelketan izena emateko azken eguna

Urdelarren bihar eta maiatzaren 14ean 22:00etan egingo den mus txapelketarako izen-ematea gaur amaituko da. Bikoteko 10 euro ordainduko dira.

BERASTEGI ▶

Patagoniari buruzko ikus-entzunezkoa

Gaur 21.00etan Patagoniari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du Jose Ramon Agirre Marronek Urepele elkartearen Aldin Kultur elkarteak antolatuta.

IBARRA ▶

Euskal herri kirolen argazki erakusketa

Kutxa Gizarte-Ekintzak, Ibarako Udalarekin lankidetzan, euskal herri kirolen inguruko argazki erakusketa jarri du Ibarako Benito Izagirre kultur etxean. Euskal gizartearen hainbat jarduerak biltzen ditu erakusketak irudi grafikoaren bitartez; besteak beste, soka-tira, pilota, trontza, idi-proba, gizon-proba edota aizkolariaren jarduna ikusi ahal izango da. Maiatzaren 17a bitarte 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etatik 21:00etara izango da ikusgai.

PILOTA ▶

Aurrera darraite HITZA txapelketako norgehiagokek

Gaur Albizturren eta bihar Alegian, Tolosan eta Adunan jokatuko dituzte

ERREDAKZIOA

HITZA txapelketako lehen norgehiagokak jokatu dira dagoneko. Herenegun ere izan ziren kadete mailako norgehiagokak jokoan Bidegoianen. Guztira lau partida izan ziren ikusgai. Lehena Goikoetxea gazteak irabazi zuen Iribarren aurka; bigarrenean, berriz, Fernandez eta Barberia aritu ziren, 18 eta 11ko markagailuarekin amaitu zena. Hirugarrenean Arakistainek irabazi zion Belokiri eta azkenekoan Arratibel izan zen garaia, Oliveiraren aurrean.

Gaur ere jokatuko dira Albizturren txapelketako lau partidak, alebinen mailan. Hauek dira aurrez aurre ariko diren bikoteak: Senperena eta Gailurralde, Jauregi eta Arrueneren aurka. Zelaia eta Labaka, Artoia eta Muruaren aurka. Eskudero eta Jauregi, Sasiain eta Manzisidorren aurka. Gorostidi eta Gotti, Etxeberria eta Murgionderen aurka.

Bihar, berriz, Tolosako, Alegiako eta Adunako pilotalekuek jasoko dituzte partidak. Beotibarren 22 urte azpikoen hiru partida jokatuko dituzte 9:00etatik aurrera: Elurbe-Legarreta Urtxipia-Landaribarren aurka, Aspe-Orbegozoa Txaurraut-Irezabururen aurka eta Etxebeste-Huarte Urmeneta-Aranalderen aurka. Infantilak Adunan ariko dira 16:00etan: Apezetxea-Aranburu Arrieta-Aizpitareren aurka; De la Sotilla-Dorronsoro Iratzusta-Jauregiren aurka; Otaegi-Iraola Josu-Oabozen aurka eta Sukia-Arzelus Oiarbide-Garmendiaren aurka. Benjaminek Alegian izango hitzordua 16:00etan: Galarraga-Otaegi Ibarzabal-Tolosaren aurka; Otaegi-Saralegi Amiano-Mujikaren aurka eta Mangas-Ibargoien Ubarretxena-Nobleren aurka.

PLAZA ETXEBERRI
JATEXEA
Sukaldari eta kamarerak behar ditugu lehenbailaen
635 752 929 (Amalá)
ZIZURKIL

Tovar
Tel.: 943 67 15 48

OSTATUA
• Eguneko Menua (aste guztian, larunbat eta igandea ezik)
• Karta aste guztian zehar
Urrope plaza • Leaburu
Tel.: 943 67 15 48

BERASTEGI ▶ KIROLA

13. Ibilaldi Neurtua egingo da etzi

Basurde elkarteak antolatzen du; gaztetxoentzako ibilaldia ere egingo da

IÑIGO TERRADILLOS

Igande honetan Berastegiko 13. Ibilaldi Neurtua egingo da, urtero herriko Basurde elkarteak antolatzen duen ekitaldia hain zuzen.

7:00etan izango da irteera Berastegiko plazatik eta berriro herrira bueltatzean amaituko da 8 ordu inguruko ibilaldia. Tartean jarriko dituzten kontroletatik igaro beharko dute parte-hartzaile guztiak eta igarotako denbora zehaztutako epearen baitakoa izan beharko du. Halaber, gutxienez 6 ordu

eta erdi eta gehienez 8 ordukoa izan beharko du ibilaldi osoa egiten igarotako denborak.

Berastegiko plazatik aterata, honako puntuak igaroko ditu ibilaldi neurtuak: Erroizpe (Larte), Boketea, Ulizar, Urto, Plazaola, Ipuliño, Gorosmendi eta San Lorentzo. Azken puntu horretatik, hau da, San Lorentzotik Berastegirantz jarraituko du bideak bertako plazan amaitzeko. Ibilaldiko unerik gogorrena eta garaiena Ipuliñoko punta igotzea izango da, baina kontuan hartu beharko dira



Igandean egingo dute 13. Berastegiko Ibilaldi Neurtua. J. SAIZAR

baita ere Larte, Ulizar eta San Lorentzo ere.

Jatekoa eta edatekoa ez da faltako ibilbideko hiru gunetan; Ulizarren fruta eta edatekoa emango dute antolotzaileek, Urton eta Gorosmendin salda, haragi egosia eta edatekoa izango da besteak beste, eta azkenik, Berastegiko plazan,

behin egin beharreko bide guztia amaituta parte-hartzaileek indarberritzeko aukera izango dute bertan prestatuko dituzten jaki eta edariekin. Bestalde, edozein larrialdi gertatu ezker bertan izango da Gurutze Gorria ibilaldiak iraun bitartean.

Horretaz gain, ibilbidea

amaitzen duten guztiei diploma bat emango zaie norberaren izenarekin, eta guztien artean mendiko materiala zozketatuko da.

Berastegiko 13. Ibilaldi Neurtuan parte hartu nahi duenak izena emateko 943 68 35 35 zenbakira deitu beharko du, edo bestela igandean bertan egin ahaliko du hasi aurretik 6:00etatik aurrera. 5 euro ordaindu beharko dute parte-hartzaileek.

Gaztetxoentzako ibilaldia

Basurde elkarteak antolatutako Ibilaldi Neurtuari, Guraso Elkarteak urtero antolatzen duen Gaztetxoentzako mendi ibilaldia gehitu behar zaio. Egun berean izango dira biak, baina gaztetxoentzako 9:30ean du irteera ordua plazatik. Bertatik San Lorentzora joango dira, 3 ordu inguruko bidea eginez. Hemen hamaiketako hartu ondoren Berastegira biudean jarriko dira han amaituko baita ibilaldia. Saria ere jasoko dute parte-hartzaile guztientzat izango baita diploma.



10 urte bete ditu Leitzarango autobiak

BERASTEGI ▶ Atzo 10 urte bete ziren A-15 autobia erabiltzen hasi zenetik, eta Nafarroako eta Gipuzkoako agintariak Berastegiko balkoian bildu ziren urtermuga ospatzeko egin zen ekitaldian. Eztabaida ugari sortu zuten 5 urte

iraun zuten Leitzarango autobidearen obrek. 10 urte igaro direnean helburua bete dela, eta komunikabide ardatz nagusietakoa bihurtu dela adierazi zuten ekitaldian. Urtero %5 handitzen da trafikoa. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

Lagun berriekin jolasean

LIZARTZA ▶ Eskolaren XVI. Asteak aurrera darrai. Atzo bisita atsegina izan zuten, Altxoko eta Abaltzisketako eskolako kideak etorri baitziren lizartzarrekin batera goiza igarotzera. Antzerkia, hamaiketako, jolasak... egin zituzten elkarrekin. Arratsaldean, berriz, afarimerienda egin zuten frontoian. HITZA

hitza **txokoa** lagunena

HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu

943 30 43 46
(8:30 / 20:30)

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'HABANA BLUES' filmerako 2 sarreren irabazlea:

MAITANE GAZTAÑAGA OTERMIN HITZAren harpidedun laguntzaile alegiarra.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

LEITZA ▶ FUTBOLA

«la-ian egon gara, baina azkenean ezin izan da; lastima!»

Aurrerak agur esan dio mailaz igotzeko aukerari, igandean 3 eta 1eko emaitza lortu arren, puntu baten faltan geldituta

JAIONE ASTIBIA

Ezin izan da azkenean. Zaila zela jakinda ere, eginahalak egin ditu Aurrerak, eta Agoitze-koekin puntuz berdin gelditu arren, aurka jasotako gol bakarrak, haien aldera irauli zuen sailkapena: Aurrerak Nafarroako Lurraldekako Lehen Mailan jokatzeko jarraitu beharko du, hurrengo denboraldian.

Igandean zuten goeroako ligaskan Agoitzen aurkako itzulerako partidua, Arkixkil futbol zelaiaren, joanera aurreko asteburuan jokatu zuten eta

gogoratuko denez, 2-0ko emaitzarekin bukatu zen hura. Ondorioz, aurrera jarraitzeko lan zailak gelditu ziren leitzarrentzat: emaitza berdindu ez baino, hobetu egin behar zen.

Horrela, partidu oso polita jokatu zuten etxean Salazarren mutilek, urduritasuna eta iraun behararen presioa pil-pilean izanik ere: agoitzarrak aurreratu ziren markagailuan 0-1ekoan, eta etxekoengan estutasuna areagotuz; baina ezari-ezarian, markagailuari buelta eman zieten Aurrerakoek, penaltiz, Antxon Gomezek sartu-

tako bi golen eta Mikel Azpirozek sartutako 3.aren poderioz. Baina, beste bat gehiagoren beharra zuten: horrela, puntu berdinketa izanik, emaitzen zenbatekoari erreparatuta, 2na puntuko alde zuten, baina Aurrerak kanpoan ez zuenez golik sartu eta Agoitzek bai, alde handitu beharrek aurkitzen ziren, bestela... Eta horixe gertatu zen: puntu horretan faltan gelditu ziren.

Esanak esan, astebururo, liga denboraldian egindako eginahalen ordainetan, merezitako oporrak dituzte orain.

LEITZA ▶ MENDI ASTEA

Mendiko istripuak ekidinez

Mendi Astearen barrenean, Manu Zubillaga kirol medikuak hainbat aholku eman ditu hitzaldi batean

J. ASTIBIA

Mendi Astea da Leitza. Egunero, badute zer-bait antolatuta Mendibil-ekoek zineman, ikusteko nahiz entzuteko. Interesgarri idurituta, asteazkenean haraxe bertaratu ginen: kirol mediku batek, mendi istripuen prebentzioaz hitzaldia emateko zuen.

Mendian gutxi-asko ibiltzen diren zaletuak izan zituen entzule, berez hernaniarra, baina kontsulta Zarautzen duen Manu Zubillaga kirol medikuak. Bere lanbidean ez ezik, mendian bertan ikusi duenaren eskarmentuan oinarrituta, mendi istripuei dagokienez, berak eta bere lankideek jasotako hainbat datu eman zituen jakitera eta horien prebentziarako hainbat aholku eman.

Prebentzio on bat egiteko berak zioenez, istripuak gertatzen direnean, faktore guztiak aztertu eta ikertzea oso garrantzitsua da: «Non gertatu den, nola, noiz... Horiek aztertuz zertan hutsegien den ikusi eta prebentzioan lan egiteko».



Manu Zubillaga hernaniarra, bertaratu ziren mendizalei, berak ikusi duenean oinarrituta, prebentziarako aholkuak eman zizkien. J. ASTIBIA

Eskura dituen datuen arabera, «orain askoz ere istripu gehiago» izaten dela baieztatzen duen, «jende gehiago dabilelako eta helburu zailagoak jartzeko direlako»; eta gainera «leku arruntetan» gertatzen direla. Euskal Herrian, kausarik garrantzitsuenak galketa omen da, «%55ean» zioen. Mendian ibiltzeko «baliabide egokiak izan eta, noski, horiek

erabiltzen jakitea» bezain garrantzitsua omen da, «gutienezko prestaketa egin», «arretaz ibili» eta «eguraldiari erreparatzea» ere.

Bidenabarrean esanez, gaur Nepaleko Himalayako irudien proiektio bat bada, Benantxio Iruretak emana eta zinemako sarreran, berriz, argazki polit askoak daude ikusgai. Gaur da azken eguna. ◀

LEITZA ▶

EHNA egiteko aukera izanen da bihar udaletxean

Goizean zehar ariko dira tramitazioan; EHNA erabiltzeko deia ere egin dute

J. ASTIBIA

Bihar, larunbata, EHNA delakoaren tramitazio eguna dela iragarri du Leitzako Bai Euskal Herriari-k. Horrela, 12:00etatik 14:00etara bitartean, udaletxeko Batzar Areatoan egin ahal izanen da Euskal Herriko Naziotasun Aitormena, EHNA alegia, horretarako beharrezko diren agiriak honako hauek direla, gogoratu batera: 3 argazki berdin (aurpegia hondo zuriarekin ageri dena), errolda-agiria (bakoitzak bere udalerriko udaletxean lortu beharrekoa) eta 15 euro.

Bai Euskal Herriari taldeak, bestalde, jakinarazi du, «Leitzan 300 EHNA-dun» badirela eta «hainbatek beraien eguneroko bizitzan» erabiltzen dutela: «Pauso txikia dela», uste izan arren, erabilpen horrekin, «egunero euskal herritarrek garelako adierazten ari gara», baieztatzen dute. Horrela, leitzar guztiei bide bera jarraitzeko gonbidapena egin ziete.

GIZARTEA ▶

Igandeko Herri Urratserako autobuserako txartelak

J. ASTIBIA

Herri Urratsera joateko autobusa antolatu dute gautek, eta edozein herritarrek autobusez joan nahi balu, txartelak salgai daude, Gaztañaga eta Torrea tabernetan, 10 euroren truke.

Adierazi dutenez, oraindik ere txartela hartzeko garaiz egonen litzake, baina «dehenbailehen egitea komeni» delarik, ziotenez: «Gaur jakin behar dugu zenbat lagun goazen autobusez igandean». Jakina, Herri Urratsa etzi eginen dute Senperako lakua- ren bueltan.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

▶ Txolarre irrata: 943 69 80 38

▶ Karrape irrata: 948 61 09 14

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Etxebeste. Gernikako

Arbola 3 (Tolosa). 943 651 040

Larraia. Elbarren 95 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta-Idia. 687 41 00 22

anoeta-idea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Monobolumena, Peugeot

806. Oso ondo zaindua. Deitu

645 70 36 34 zenbakira.

GALDUTAKOAK

Giltzak. Barruan giltzak dituen

oihalezko zorro bat galdu da,

ustez Iruran. Deitu

669 41 40 02-ra

